

2015EKO URRIAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2015 urriaren 29an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2015EKO IRAILAREN 24AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2015eko irailaren 24ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

263/2015.- *Baserri bat barrizteko udal lizentzia.*

264/2015.- *Bakioko argindarraren zerbitzuen kontratua arautzen dauzan Administrazio Klausula Berezien eta Preskripzio Teknikoen Orrietan, fakturazinoari eta dirulaguntzei buruzko atal batzuen ganeko txostena egiteko kontratu txikia adjudikatzea.*

265/2015.- *Etxeen bitarteko hormak konpontzeko udal lizentzia.*

266/2015.- *Goi arkitekto batek Bakioko Udalari eman beharreko aholkularitza tekniko eta urbanistikorako zerbitzua, publizitaterik bako prozedura negoziatu bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio klausula zehatzen eta teknikoen orria onartzea.*

267/2015.- *Kultur Etxeko gela bat erabilteko udal baimena.*

268/2015.- *Leihoak aldatzeko udal lizentzia.*

269/2015.- *Aparkaleku batera sartzeko arrapalan posteak eta eskubandak aldatzeko udal lizentzia.*

270/2015.- *Irisgarritasun plana barriztatzeko edo egokitzeko dirulaguntzak eskatzea.*

271/2015.- *Gazte ekipamenduak barriztatzeko edo egokitzeko dirulaguntzak eskatzea.*

272/2015.- *2015eko hirugarren hiruhilekoaren zarama tasaren errolda onestea.*

273/2015.- *Eskaileretako atsedenguneetako beirateak barrizteko udal lizentzia.*

274/2015.- *Suetea barrizteko udal lizentzia.*

275/2015.- *Leihoak aldatzeko udal lizentzia.*

276/2015.- *Urkizta Ikastetxeko Guraso Alkarteari 940,20 euroko kopurua emotea Doniene bezperako suaren ekitaldia antolatzeke lanak dirala eta.*

277/2015.- *2015eko garagarrilaren 30eko Nazinoarteko Folk jaialdia eta 2015eko abuztuaren 15eko ekitaldia dirala eta, Itxas-Alde dantza taldeari 2.500 eta 3.500 euroko diru-laguntza emotea, hurrenez hurren.*

278/2015.- *Suetea eta bainugelea barrizteko udal lizentzia.*

279/2015.- *Lursail bat banatzeko udal baimena.*

280/2015.- *Bizkaia Kopa Trailen 6. etapa egiteko udal baimena.*

281/2015.- *BSTko TXAPELKETA antolatzeke udal baimena.*

282/2015.- *Informazino gune bat ezartzeko udal baimena.*

283/2015.- *Dantzari egiteko Kultur Etxeko gela bat erabilteko udal baimena.*

284/2015.- *Horma bat barriztu eta ate barri bat iminteko udal lizentzia.*

285/2015.- *Bakioko Udala 141/2015 errekurtsora bertaratzeko ebazpena.*

286/2015.- *Bakioko Udala 169/2015 errekurtsora bertaratzeko ebazpena.*

287/2015.- *Ondare erantzunkizunagaitiko kalteak onartzea eta beharrezko diru-kopurua ordaintzea.*

288/2015.- *Pertsona bateri Bakioko biztanleen udal erroldaren inskripzioan baja emotea.*

289/2015.- *4x4 ibilgailuen topaketa bat egiteko udal baimena.*

290/2015.- *Kultur Etxeko gela ixteko udal baimena.*

291/2015.- *Suete eta bainugela bat barrizteko udal lizentzia.*

292/2015.- *Ondare erantzunkizunagaitiko kalterik ez onartzea.*

293/2015.- *Espediente bat hastea pertsona batzuei Biztanleen Udal Erroldan baja emotea.*

294/2015.- *Euskal Ezkontzaren antzezpena ospatzeko udal baimena.*

Ametz Jauregizar alkate andreak galdetu dau ia inork dekretuei buruz zeozer esateko daukan, baina inork be ez dau ezer esan.

3.- TRAKZINO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GANEKO ZERGEA ARAUTZEN DAUAN ZERGA ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA HASIKERA BATEAN ONARTU.

Ametz Jauregizar alkate andreak, EH Bildu taldearen izenean, dino: trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergearen tarifak aldarazotea proposatzen dogu, tarifa barriak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egon daitezkan. Gaur egun indarrean dagozan tarifek ez dabe gitxieneko tarifetatik portzentaje bardina gordeten (zinegotziei bialdu jaken tarifentaulan agiri dan lez). Proposatzen doguna da tarifa guztiak gitxieneko tarifetatik portzentaje bardina gordetea, hau da, %70a.

Ondoren, Josu Garai zinegotziak, BakioBai taldearen izenean, dino: guk zalantzak daukaguz, esaterako, taularen arabera, 8 zaldi-zerga baino gitxiagoko turismoei 2016an 26,50 euroko tarifa legokie eta mota horretako turismo guztien artean 2016ko tarifent erroldan 185 euro batzea aurreikusten da, azken zenbaki hori zelan azaltzen da? Hau da, ikusten dogu hor akatsa dagoala, 2016ko ibilgailuen tarifent errolda osotzeko, kalkulua 2014ko ibilgailuen kopurua kontuan hartuta egin diralako, 2015eko

ibilgailuen kopurua hartu beharrean. Beraz, 2016ko tarifen errolda 145.000 euroko izango dala aurreikustea ez da zuzena.

Zergearen bidez 2016an batzea aurreikusten dan diru kopuruaren zenbatekoa jakiteari ezinbestekoa deritxogu, 2016ko udal aurrekontua osotzeko orduan, datu esanguratsua dala uste dogulako.

Aitor Ibarzabal zinegotziak dinotso: zer diru atarako dan ezin da jakin, 2016ko ibilgailuen errolda egin barik dagoalako, horregaitik taulan azaltzen diran diru-bilketa kopuruak gitxi gorabeherakoak dira.

Ametsek dino: gaurko batzarreko helburua ez da tarifen aldarazpenaren bidez lortuko dan diru kopurua zehaztea, helburua beste bat da, hau da, zaldi-zergen guztien tarifak gitxienerako tarifetatik portzentaje bardina gordetea, justizia sozialean eta progresibidade orekatuan oinarrituta. Hau da, uste dogu ez dala justua zaldi-zergarik gehien daukiezan turismoek gitxienerako tarifetatik %54ko igoerea eukitea eta beste guztiek, barriz, gitxi gorabehera, %64a, azken honeek herrian dagozan turismoen artean gehienak izanik eta, ganera, eurok, ziur asko, diru sarrera xumeenak daukiezenak izanik; izan be, hori da guk egiten dogun irakurketa eta, ganera, logikoena. Gure ustez, justuena da denak gitxienerako tarifetatik portzentaje bardina gordetea, horrek udalari ekarri leikiokezan diru irabaziak begiratu barik.

Josu Garai dino tarifen aldarazpena onartzeko justizia sozialaz aparte, beste faktore batzuk be kontuan hartu behar dirala, esaterako, doikuntza plangintzaren bilakaerea, 2016ko udal aurrekontu orokorraren edukia, Udalkutxaren aldetik ze diru-sarrera egongo dan, eta abar. Hortaz, gure proposamena da trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergaren aldarazpenari buruz, gaur bertan, erabagirik ez hartzea.

Idazkariak, bere aldetik, dino, gaurko erabagia ez dala behin betikoa, ze tarifak onartzen badira erabagia hogeita hamar astegunean jendaurrean ipini behar da. Beraz, epe horretan, gura dauanak alegazinoak aurkezte daikez, eta hori gertatuko balitz, Bakioko Udalbatzak alegazinoak ezeztatu eta tarifen aldarazpena behin betiko onartu beharra izango leuke, eta, ostean, aldarazpena oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko litzateke, hori guztiori 2015.12.31rako.

José Antonio Abio zinegotziak, EAJ/PNVren izenean dino:

“Con respecto al punto 3 del orden del día, en primer lugar veíamos correcto el planteamiento inicial que se llevó al pre-pleno del lunes incluyendo una modificación conjunta de tasas e impuestos. Sin embargo al reducir este punto únicamente a impuesto de vehículos, eliminando del orden del día las tasas de alcantarillado y el de recogida de residuos, esta medida no cuenta con nuestro apoyo porque consideramos que a estas alturas hay que marcar la que será la línea de actuación cara al presupuesto del 2016, y decidir en global sobre todos los ingresos como un conjunto de medidas y no decisiones inconexas.

Por otra parte el cuadro sobre las modificaciones de tarifas en el impuesto de vehículos a motor presentado en el pre-pleno tiene una errata al utilizar el nº de vehículos del 2014 para calcular los ingresos de 2016, cuando se tenía que haber utilizado el último padrón del 2015. Esto supone que la subida de recaudación de que se habló que era de unos 12.963,08€ realmente sea solo de 4.996,58€. Por lo tanto se reduce el interés de este cambio y la modificación se convierte en una cantidad simbólica que no cuenta con nuestra aprobación.

Proponemos:

Estudiar todas las tasas e impuestos en conjunto y consensuar una modificación global de todos ellos en función de las necesidades de los servicios prestados y del presupuesto para el próximo 2016. Estimamos que para vehículos convendría acercarnos a una subida de recaudación más acorde con lo hablado en el pre-pleno, y para Alcantarillado y Basuras seríamos partidarios de revisar y ajustar al alza, progresivamente en varios ejercicios, hasta equilibrar el coste del servicio con los ingresos por tasas.”

Alkate andreak erantzun deuto esanez:

“Batetik, udal teknikariek idatzitako estolderiaren zerbitzuaren kostuari buruzko txosten ekonomikoa talde politiko guztiei bialdu jaken, eta txostenean argi azaltzen dan ezker, zerbitzuaren kostua tasaren erroldako zenbatekoa baino gitxiagoa da; beraz, tasaren zenbatekoa ezin da igo, legez tasaren erroldako zenbatekoa zerbitzuaren kostuaren zenbatekoa baino handiagoa ezin da izan eta.

Bestetik, udal teknikariek idatzitako zabor bilketa zerbitzuaren kostuari buruzko txosten ekonomikoa be talde politiko guztiei bialdu jaken, eta EH Bilduk informazio batzordean argi azaldu eban txosten horren edukiaz ez egoala ados, agiri horren arabera tasaren erroldako zenbatekoa zerbitzuaren kostuaren zenbatekoa baino 43.842.00 euro gehiagokoa izan arren, “participación en gastos de estructura” delakoaren kostua (82.109,00 €) ez dogulako guztiz bidezkoa ikusten. Ondasun Mugiezinen ganeko Zergari jagokonez, gure ustez ezin da Uri-Ondasunei buruzko zergaren zenbatekoa igo, Bakion onartuta dagoana zenbatekoz handia dalako.

Beraz, ezin da esan tasak urtero %5 igoko dirala, doikuntza plangintzan horrela ipini arren, tasak zerbitzuen kostua estaltzeko baino ezin diralako onartu. Eta Ondasun Mugiezinen ganeko Zergea be ezin dogu aldarazo handia dalako; hori dala-eta aukera bakarra traxino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergea aldarazotea izango litzateke”.

Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ/PNVren izenean, adierazo dau: EH Bilduk dino ez datorrela bat estolderia eta zabor bilketa zerbitzuen kostua kalkulatzeko udal teknikariek egindako txosten ekonomikoagaz. Hori horrela bada, egin behar doguna da hiru taldeko ordezkariak bildu, txosten horreek barriro aztertu errealidadeagaz bat datozela ziur egoteko, eta, azterketa horren ondorioz, txostenok doitzea derrigorrezkoa bada, aldaketak egin eta orduan ikusi gaur egungo tasen erroldek zerbitzuon kostuak estaltzen

dabezan edo ez. Horrez ganera, trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergaren aldarazpena aztertu behar da.

Josu Garai zinegotziak, BakioBai taldearen izenean, dino barriro batzartu beharra dagoala ibilgailuen ganeko zergaren aldarazpena aztertzeko, eta horretarako eskura datu gehiago behar dabela.

Ametsek dino: harritura gagoz ze ibilgailuen ganeko zergea aztertzeko astia soberan egon da-eta baina, dana dala EH Bildu prest dago gai hori barriro aztertzeko, udal batzarra lehenbailehen egin behar dala kontuan hartuz, datorren astean ahal bada.

Ikusirik talde politikoez dauken jarrera, Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez, erabagi hau hartu dau.

Trakzino Mekanikozko Ibilgailuen ganeko Zergaren aldarazpenaren ganeko erabagirik ez hartzea, gaur bertan.

Bihar, barikua 30, arratsaldeko 19:00etan, talde politikoko ordezkariak batzartzea, Trakzino Mekanikozko Ibilgailuen ganeko Zergaren eta hemen berba egin dan tasen eta zergen aldarazpena aztertzeko.

4.- HALA BEHAR BALITZ, ZUBIAURREALDE 34-A HELBIDEAN DAGOAN BASERRIAREN ONDOTIK IGAROTEN DAN BIDEAREN IZAKERA PUBLIKOAREN GALERA ONARTU.

Gai hori dala-eta, idazkariak berbea hartu eta espedientearen helburua azaldu dau honakoa esanez: Zubiaurrealde 34-A baserri ondotik (ekialdetik) igaroten dan bideak erabilera publikokoa izanik —horrela agertzen da Landa Kastatroan eta beste agiri batzuetan behintzat—, bide horren zati batek (119 metroko luzeran, gitxi gorabehera) jabari publikoko izakerea galduko leuke, ondare-ondasuna bihurtuz, eta, ostean, lur-zati hori gaur egun pribatua dan beste lur-zati bategatik trukatu litzateke, azken hau bide publikoa izan daiten. Prozedura hau herritar batek egindako eskabide dala-eta izapidetu da.

Jarraian, bilkurara hurreratutako entzuleei gorago azaldutako eragiketea islatzen daben planoak erakutsi jakez, hau da, gaur egungo ibilbidea agertzen dan plano eta proposatzen dan ibilbidearena.

Zinegotziek, espedientearen agiri diran aitaturako eskabidearen eta planoen eta idazkariaren 2015eko abuztuaren 19ko txostenaren edukinaren jakitun diran ezker, boto emon dabe, eta, horrenbestez, EH Bildu eta BakioBaki talde politikoez aldeko botoagaz (guztira 6 boto), Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Erabilkera publikoko bide baten sailkapen juridikoa aldatzea, beti be Zubiaurrealde auzoko 34-A zenbakian dagoan eraikinaren ondotik igarotzen dan

zatiari jagokonez; halanda ze, herri jabaritik atara eta ondare ondasun modura kalifikatuko da. Erabagi horrek men egiten deutson bide zatia honako hau da: gitxi gorabehera 119 metroko luzera daukan lur zati bat, mendebaldean Bakioko landa katastroaren 005 poligonoko 131, 130 eta 129. lursailak mugakide daukazana eta ekialdean katastro bereko 132 eta 135. lursailak.

2.- Horrenbestez, prozedura jendurrean ezartzea hilabeteko epean iragarki taulan nahiz Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean; epe horretan bidezkoztat jotzen diran alegazioak aurkeztu ahal izateko.

EAJ/PNV udal taldeko bost zinegotziak abstenidu egin dira.

5.- EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZOTeko NAZINOARTEKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA (ZEMENDIAREN 25A).

Ametz Jauregizar alkate andreak adierazo dau zemendiaren 25ean emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazinoarteko eguna dala-eta Ongizate Informazio Batzordean haxe berbatu zala: “Marta Txori” emakumeen alkarteak proposatutako idatzia udalbatzarrean danon artean onartzea, udalaren adierazpen instituzional modura, bai eta, adierazpen horretan ageri diran erabagiak datorren urtean betetea be. Horrez ganera, horren laburpena zemendiaren 25ean egingo da kontzentrazioan irakurriko dala be adierazo dau.

Ostean, Ametsek agiri hori irakurri dau, edukia haxe izanik:

AZAROAREN 25A, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azaroaren 25ean Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna izango da. Hori dela eta, udal honek bere herrialde konpromisoan eta, era berean, herritar guztien konpromiso politikoan sakontzen jarraitzeko asmoa berretsi nahi du, emakumezkoek indarkeria matxistatik libre eta aske bizi izateko eremu komun eta erkideak izan ditzaten, gizon eta emakumezkoen arteko benetako berdintasunean oinarritzen den elkarbizitza eredu libreak errealitate bihur daitezzen eta egitura soziala parekidea izan dadin.

Herritarren bizitza kolektiboa kudeatzeko erantzukizuna duen erakunde orok lehentasunezkoztat hartu behar du bere agenda politikoan eta jarduketa instituzionalean era guztietako indarkerietatik aske dauden herrialde eta lurraldeen eraikuntza, bai eta gizarte berdinzalearen defentsa ere.

Hego Euskal Herrian indarkeria matxista, gutxitu beharrean, nabarmen handitu da 2015eko azken txanpa honetan. Eraso sexistak ugariak izaten ari dira eta erailketak ere bai.

Azkeneko garaian indarkeria matxista, bortxaketak, erasoak eta erailketak ez ezik zeharkako indarkeria matxistak eta eguneroko mikroindarkeriak ere ugaltu dira, eta herritarrek hori guztia barneratzeko eta normaltzat hartzeko arriskua ere azaldu da.

Horrela, 2015ean berriro ere ugariak izan dira bortxaketa arriskuak, nesken eta emakumezkoen bizitzen gainean egiten diren kontrolak (kontrol ekonomikoak, fisikoak, sexualak, afektiboak, sozialak eta kulturalak), emakumezko askok jazarpena jasan behar izan dute egunean-egunean (irainak, bazterketak, gutxiespenak) eta bestelako erasoak ere pairatu dituzte (lan prekarizazioa, enplegu falta, zainketa zereginen isilpeko zama). Eguneroko mikroindarkeriak barneraturik eta normalizaturik daude gizarte eredu patriarkalaren ereduaren barruan, eta horren aurka ere egin behar dugu ezinbestean.

Premiazkoa da indarkeria sexualari lotutako kasuen eta salaketen egunerokotasun normalizatua desagerraraztea eta ezabatzea. Beren horretan diraute gure askatasuna jai eta aisialdi eremuetan mugatzen duten jazarpen eta gehiegikeria sexuak. Halaber, kezkagarriak dira lan jazarpenari buruz azaltzen diren datuak. Belaunaldi gazteetan sexu desberdinen arteko botere erlazioak eta balio patriarkalak azaltzen dira, gero eta gehiago, eta, aldi berean, gazte askok harreman desorekatuak eratzen dituzte, kideen kontrako indarkeria erabiliz.

Gizarte eredu ezinbestean aldatu behar dugu, indarkeriari amaiera eman ahal izateko. Indarkeria mota horiek guztiak, bai makroak bai mikroak, desagerrarazteko bide bakarra da horiei eusten dieten edo horiek onartzen eta babesten dituen jarduna ezabatzea.

Eta zeregin horri, geure egin behar dugun konpromiso horri, gizartea osatzen dugun agente guztiok heldu behar diogu, hala egin ezean, indarkeria matxistari eusten jarraituko baitugu. Izan ere, guztion erantzukizuna da egoera horri norberaren eragin esparrutik aurre egitea, sortuz eta babestuz doan bortizkeria hori behingoz buka dadin. Zeregin horretan, beraz, erakunde publikoek, kultur agenteek, komunikabideek, lan eremuko agenteek, agente ekonomikoek... esku hartu behar dute. Baina, pertsonak, familiek, adiskideek, kolektiboek eta arduradun publikoek ere zuzeneko erantzukizuna dute.

Gaitz lazgarri honen kontra borrokan egiteko bideak ere onartu eta horiei laguntza eskaini behar zaie, helburua bakarra izan arren, hari aurre egiteko bideak askotarikoak izan baitaitezke: autodefentsa feminista bide bat da, baina bestelakoak ere baliagarriak dira, hala nola Beldur Barik ekimena, herrien jaien testuinguruan abiarazitako performace eta ekintzak, elkarteek edo auzoek aurrera eraman ohi dituzten ekimenak... Guzti-guztiei eskaini behar zaie beharrezko laguntza.

Hori dela eta, indarkeria matxistaren kontrako nazioarteko egun honetan, Euskal Herri berdinzale eta ekitatibo baten alde ditugun aldarrikapenak inoiz baino ozenago entzunarazi behar ditugu, Euskal Herri hori eraiki ezean, ez baitzaigu posible izango, benetako demokrazia bat lortzea. Horregatik, hona hemen gure konpromisoak:

Bakiok genero arrazoiengatiko bereizkeria eta diskriminazio guztien kontra lan egiten jarraitzeko konpromisoari eusten dio, bereziki haren adierazpiderik larriena den indarkeria matxistaren kontra; gauzak horrela, erakunde eta ordezkari bezela sentsibilizazio eta prebentzio zeregina betetzen eta biktimei laguntzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Udalerriko eguneroko bizitzaren eremu guztietan eredu ez-sexistak sustatzeko eta gizonezko eta emakumezkoen arteko benetako berdintasuna bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, betiere fenomeno honen ezabaketa helburu; orobat, indarkeria matxistaren kontrako protokolo bat egiteko konpromisoa hartzen dugu, zeregin horri beharrezko baliabide ekonomikoak eskainiz.

Horren ostean, Bakioko Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez, hauxe erabagi dau: **azaroaren 25a, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko egunari buruzko adierazpen instituzionala onartzea**

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Jose Antonio Abio zinegotziak, EAJ/PNV taldearen izenean, bi eskaera honeek egin dauz:

Batetik, ekonomia gaiakaz zerikusiak daukezan idatziak gaztelaniaz prestatzeko.

Bestetik, udal gobernuak informazio batzordeetan gairen bat aurkezten dauanean, udal gobernuaren azalpen laburra gura dabela, gaiaren nondik norakoari eta zelan bideratu beharrari buruzkoa.

Amets Jauregizar alkate andreak dinotso erantzunak hurrengo ohiko udal batzarrerako izango dauzala.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 20:10ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria

2015EKO URRIAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURATIK KANPO.

Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 88.3 eta 228.2 artikuluetan oinarrituz, Amets Jauregizar alkatea andreak, udalbatzaren aretoan dagoan publikoari zuzenduz, adierazo dau ia inork ezer galdetu edo esateko dauka, eta inor be ez dau ezer adierazo.